



AMA LURRA (MENDIAK/ ZUGAITZAK)

-1-

Zure ondoan dozu,
euskaldun mendia
pozik artzeko zure
besarka ezta.
Gorputz ederra dauko,
mardul ta gaztia,
tinko ta usai gozoz
ondo igurtzia,
txukun, garbi ta garden
bere aurpegia.

-2-

Zugaitzeko jantziak
jantzi dauz mendiak,
danetan agertuaz
eder-ederrenak.
Tontor eta egalak
ditu estaliak,
baita beko lautadan,
apain bereziak,
dizdiratsuak oso
ta zoragarriak.

-3-

Euskal menditan dagoz
zugaitz bereziak
euskal izenagaz be
ondo ezautuak.
-Ni naz gaztainondoa,
-gu gara urkiak,
-ta gu aretxa, pago,
altza ta lizarrak,
gorostia, pinua,
izaia ta arteak.

-4-

Zugaitz berezi dogu,
ezauna mendian,
toki askotan dana,
"arte" izenean.
Osto narrutsuk ditu
"ezkurra" barruan,
beronen urunena
jana antziñean.
Altxor aberratsa da
gure oianetan.

-5-

Zugaitz batzuk ba dira,
txapel andikoak
kerizpea egiteko
oso egokiak.
Txoritxuentzat bere
gordeleku onak,
egurats ta aizeteen
zaindari bikañak,
autsa garbituaz ta
gitxituz zaratak.

-6-

Euskal mendiko aideak
arnastuko zaitu,
ta aize fresko legunak,
izerdia kendu.
Iturritxuko urek
egarria ildu
ta bideko frutuak
gosea asetu.
Mendira ibilteak
osatuko zaitu.

-7-

Osasungarri bada
mendin ibiltea,
atsegingarria be,
dagona ikustea:
txorien egazkadak
ardien taldea,
zaldien galapadak,
arito talkea,
ta edozein lekutako
lore kolorea.

-8-

Gernikako Arbola
zugaitzen artetik
mundu guztian dogu
kantuz entzuenik.
Es dadilla gelditu
buruan gordearik!
Jaurtin daigun kalera,
bape bildur barik,
toki guztietan beti
euskera eginik.

Munetxek.

Bil-10.X.7

olerkia